

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**  
**EUSKARA-ELKARTEEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko maiatzaren 26an – 12:30 h

BERTARATUAK

**Bilboko Udala**

Koldo Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia=)

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

**Euskara-elkarteak**

*Berbaizu.* Jon Intxaurreaga

*Biba kulturgunea.* Lutxo Egia

*Euskaltzaleen Topagunea.* Manuel Moreno

*Palanka taldea.* Jon Iturriaga

*Uztarri.* Ainara Aretxabaleta

**Ezin etorria aldez aurretik adierazi dute**

*Asapala*

*Euskal Herrian Euskaraz*

*Iralako Euskal Txokoa*

*Lizardi*

*Zenbat Gara*

*Zorrotzako euskal txokoa*

**Idazkaritza teknikoa**

*Bilbao Metropoli-30.* Idoia Postigo

*Labayru Fundazioa.* Lander Solozabal

## GAI-ZERRENDA

### 1.- AURREKO BILERAREN (2017-03-03) AKTA ONARTU.

Koldo Narbaizak hasiera eman dio bilerari, eta parte hartzaileei beraien **laguntza eta konpromisoa eskertu** die.

Aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

### 2.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO BILERAREN BERRI EMAN.

Jone Unzuetak eta Marijo Arrietak labur-labur esan dute **bilera honen helburua** dela Aholku Batzordearen aurreko bilerakoak azaltzea eta hemendik aurrerakoak zehaztea, baina horren aurretik egoki ikusten dutela (bileretan beti ez dagoelako jende bera eta hirugarren bilera delako) orain arteko ibilbidea gogoraraztea.

Lander Solozabalek **orain arte egindako bidea** azaldu du:

Euskararen Aholku Batzordea 2016ko otsailean sortu zenetik, lau bilera egin ditu, eta horietan, besteak beste, hauek zehaztu eta finkatu ditu: osaera, helburuak, funtzionamendua, kronograma, arautegia, ESEPen azalpena, bisio estrategikoa definitu eta hiru azpibatzerdeak sortu.

Aholku batzordearekin batera, hiru azpibatzerdeek (euskaltegiarena, euskara-elkarteenarena eta hedabidearena) bina bilera egin dituzte (hau dugu hirugarrena), bisio estrategikoa adostu eta helburuak eta ekintzak zehazteko.

Aholku Batzordea eta azpibatzerdeak lotuta doaz eta koordinatuta daude: batean egiten, proposatzen eta zehazten dena, bestera eramaten da, eta alderantziz.

Gaurko bilerara etorrita, gogoratu ditu azpibatzerde honen **azken bileran (martxoan) eman ziren pausoak**. Bertan helburu eta ekintza zehatzak proposatu, adostu, bateratu, zerrendatu eta bozkatu ziren. Horren ostean, ekintza horiek -eta beste azpibatzerdeetakoak ere- Aholku Batzordera eraman ziren (apirilean), eta lau multzotan banatu ziren: soilik euskaltegienak zirenak, soilik euskara-elkarteenak zirenak, soilik hedabideenak zirenak, eta azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu zirenak (zeharkakoak edo transbertsalak).

Horrez gain, aparteko multzoan zehaztu ziren Udalak berak bideratu behar dituen ekimenak.

### 3.- AUKERATUTAKO EKINTZAK MARTXAN JARTZEKO HURRENGO

PAUSOAK ZEINTZUK DIREN AZALDU.

Azpibatzerdeetako ekintza guztiak aztertu ondoren, eta aurrera begira lan-metodo bat ezartze aldera, **hiru taldetan multzokatu ziren ekintzak**: udalari (batez ere) dagozkionak, azpibatzerdeek gehiago zehaztu eta landu beharrekoak (orokorregiak direlako), eta azpibatzerdeei (batez ere) dagozkienak.

Euskara-elkarteen azpibatzerde honen kasuan, gehiago landu eta zehaztu beharreko ekintzak “Euskara elkarten laguntzak” eta “Etorkin, guraso, merkatari eta talde zehatzentzako ekintzak” izan ziren, eta azpibatzerdeari (batez ere) dagozkion ekintzak “Euskara elkarteak bistaratzeko jardunaldiak” eta “Berbalaguna proiektua zabaltzea” izan ziren.

Proposatu da bi ekintza horiek lantzen hastea, eta emaitza irailaren erdian aurkeztu, urrirako aurreikusi den Aholku Batzerdeko bilerara eraman ahal izateko.

### 4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Udalak aurrera eramango dituen ekimenak aurkeztu ondoren, solasaldia sortu da euskara-elkarteen diru-laguntzen inguruan. Hauek dira solasaldi horretako ondorio nagusiak:

- Euskara-elkarteek proposatzen dute: proiektuen biziraupena babesteko Udalaren ordainketak aurreratzea; diru-laguntzen zuriketa-prozesua arintzea eta erraztea, hitzarmen bidez lan egiteko aukera aztertzea, eta programazio- eta koordinazio-lanak gastutzat hartzea.
- Udalaren partetik hauek izango dira hurrengo pausoak: prozesuan dokumentazio guztia izatekotan, uztailan ordaintzea. Bestalde, Euskara Zuzendariordean ahal duten neurrian, informazioa argituko dute akatsak ekiditeko.

Bestetik, Aholku Batzerdeak eskatu zion euskara elkarten azpibatzerdeari ondorengo ekimena gehiago zehaztu eta lantzeko: Etorkin, guraso, merkatari eta talde zehatzentzako ekintzak

Horrekin lotuta, hau adostu da:

- Euskararen erabilera sustatzeko estrategia zehatz bat definitu behar da talde bakoitzarengana heltzeko.
- Merkataritzaren arloan, identifikatzea euskara erabiltzen duten dendak, jatetxeak, eta abar. Udalak Azkue Fundazioarekin harremanetan jarriko da “Euskararen mapa” egitasmoa bultzatzeko.
- Aztertu behar dira zeintzuk diren ekintza egokiak eta arrakastatsuak. Euskara-elkartei eskatuko zaie esperientzia onen berri ematea (esate baterako, Berbaizuren “Zergatik ez?” tailerra).

- Elkarreek proposamenak bidaliko dituzte korreo elektronikoz ekainaren 9an baino lehen
- Azpibatzerdearen bilera deituko da ekainaren 27an, 12:30etan jasotako proposamenak aztertzeko.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 26an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA